# FISTUKA

Lezoko musika aldizkaria. Izba. 1991-5-19



«TOMAS GARBIZU»

LEZOKO UDAL MUSIKA KONTSERBATORIOA



# ATARIAN

Bada herrian nola edo hala musikari lotuta egon den zenbait jende. Batzuentzat gaztaroko kontuak dira horiek, besteentzat ez da oraindik erabat eten lotura hori. Guztion ahaleginak kontutan hartu nahirik txoko bat eskaini nahi izan diegu orri apal hauetan barrena.

Musikarekin saiatu diren guztiak ez dituzu, agian, zerrenda honetan aurkituko; baina zaude ziur bertan aurkitzen dituzun guztiak ahalegin horretan saiatuak direla.

Apika aurkituko duzu ezagunak dituzun lezoar zenbaiten alderdi -askotan- ezkutu hori. Beste asko jakin bazenekien hortan zebilela baina bere nondik norakoaren aztarnarik ere ez zenuen. Halako hark pikardiarik gabeko anekdotak kontatuko dizkigu. Honako honek, bereak nola egin zuen porrot eta amolai! dena pikutara joan.

Arestian esan dugunez lezoarrak dira oro. Beno... neurri batean. Lezon jaioak, gehienak. Besteak ba... Lezorekin zerikusi estua dutenak, bai bertan bizi izan direlako, bai bertan lan egiten dutelako..., ez ote da guzti hori nahikoa lezoarrak direla aitortzeko? Guk behintzat halatzat ditugu. Hauek ez badira, nork irakatsi behar die gure haurrei oboeak txulotxo horretan dituen xafla arraio horiei soinu apur bat ateratzen? Nork esan behar



Lezoko Abesbatzaren kontertua 1954ko Mendekozte Jaietan"

die "inpernuko auspoa"-rekin, bat, bi, hiru, lau baino zerbait gehiago jo daitekeela? Nola jakingo dute gure haurrek musika, bizitza honetan gozatzeko, ordu luzeetan ondo pasatzeko tresna zoragarri bat dela?

Ahaleginetan ibili bagara ere, ez bide da guk nahi bezain borobil atera guztia.

Testu luzeenak elebitan eman ditugun arren, laburrenak eta errazenak, eskuratu ditugun horretan utzi dizkizugu (horra hor ariketa polita zuretzat). Azkenean, beti bezala, eta horretaz apika badakizu zerbait zerorrek, denbora falta ditxoso horri leporatu behar guztiak, norberaren burua zuritzeko besterik ez bada ere.

"Agravio comparativo" direlakoak sor daitezke agian. Askotan entzun dugu borondate onak ez duela ezer balio asmatzen ez bada. Ez dakigu axerturik izan dugun, baina borondate ona... kiloka.

Akademiak (gaurtik aurrera KONTSERBATORIOA, hitz itsusia baina apaina) bost urte hauetan izan dituen GORA-beherak ere azaltzen dizkizugu. Ez da erraza izan orain artekoa, haatik kementsu ikusten ditugu geuren buruak aurrekoari ere gogotik ekiteko.

Gertakari pozgarri batekin batera plazaratu nahi izan dugu aldizkaritxo hau. Maiatzaren 19an Lezoko Udal Kontserbatorioak, azkenean bere egoitza izango du. Tomas Garbizuren izena hatuko du. Ez dugu nolanahiko babesa, alafede!.

Lezoar zahar eta gazte, haur, emazte... guztion onerako izan dadila.

Hala biz!

**Pierre Gervasioni frantses musikologoak, XX. mendeko musika-tresna bezala definitzen du akordeoia. Are gehiago, akordeoiaren modernitate hau da, hain zuzen, bere esparrua.mugatu duena, musika jenero haundietatik at egonik.**

**Egun, AKORDEOI TALDE honetako partaideak hauek dira:**

| | |
|---|---|
| **Leire Garbizu** | **Maider Diez** |
| **Gentzane Artola** | **Ainhoa Mera** |
| **Silvia Folgueira** | **Olatz Gorosabel** |
| **Ainhoa Santesteban** | **Mónica Vicente** |
| **Mirari Diaz** | **Yurre Elizalde** |
| **Ainhoa Iglesias** | **Iraultza Labordeta** |
| **Edurne Riaño** | **Ainhoa Urkizu** |
| **Edurne Askasibar** | **Eva Erice** |
| **Ana Olmos** | **Susana Domínguez** |
| **Nagore Simón** | **Susana Taboada** |
| **Itsaso Garin** | **Larraitz Egibar** |

Nació en San Sebastin el 16 de Mayo de 1963.

Con ocho años comenzó sus estudios musicales en el Conservatorio Superior de Música de San Sebastián logrando el Título Superior de Música en la especialidad de acordeón.

Perteneció durante doce años a la Orquesta de Acordeones del Conservatorio Superior de Música de San Sebastián, actuando en numerosos conciertos por toda la geografía de la península. Hay que destacar también la participación de dicha orquesta en varios certámenes internacionales entre los que caben destacar:
1º Premio Gran Prix Europeo de l'Acordeon (Lyon 1977)
1º Premio Gran Prix Burdeos (1979)
1º Premio Coupe Mundiale (Folkestone-Inglaterra 1984)

Después de la orquesta formó parte del "Donostiako Akordeoi Taldea" (Septeto de acordeones) con el que dieron numerosos conciertos montando, finalmente, el espectáculo LIBERTANGO.

Desde su fundación hace cinco años, lleva impartiendo clases en la Academia Municipal de Música de Lezo, formando hace dos años el grupo de acordeones.

Este GRUPO DE ACORDEONES se formó atendiendo fundamentalmente a dos objetivos:

a) La formación musical de sus componentes, todos ellos estudiantes del Lezoko Udal Kontserbatorioa, y cuya edad media es de unos catorce años.

b) Dar a conocer las posibilidades del acordeón como .instrumento de concierto. El musicólogo francés Pierre Gervasioni define el acordeón como "un instrumento del siglo XX". Y es más, es esta modernidad del acordeón la que ha limitado su campo de acción dejándolo al margen de los grandes géneros musicales.

Sus componentes son en la actualidad:

| | |
|---|---|
| Leire Garbizu | Maider Diez |
| Gentzane Artola | Ainhoa Mera |
| Silvia Folgueira | Olatz Gorosabel |
| Ainhoa Santesteban | Mónica Vicente |
| Mirari Diaz | Yurre Elizalde |
| Ainhoa Iglesias | Iraultza Labordeta |
| Edurne Riaño | Ainhoa Urkizu |
| Edurne Askasibar | Eva Erice |
| Ana Olmos | Susana Domínguez |
| Nagore Simón | Susana Taboada |
| Itsaso Garin | Larraitz Egibar |

## *ARANGUREN Mari Sol*



***"Donostiako Ganbara Abesbatza kontzertua. Ezkerraldean exerita Marixol Aranguren".***

Mi mejor vestido y mis mejores calcetines, todo está preparado para el viaje.

Nos vamos a Lequeitio.

Como siempre grandes discusiones a la hora de meternos en la parte trasera del 124 granate.

Todos queremos la ventanilla, después de unos cuantos gritos y empujones los mayores podemos apoyarnos en el frío cristal.

Ocho grandes ojos que miran sin parpadear, todos los paisajes que pasan a gran velocidad, cuatro pequeños cuerpos perfectamente acoplados en aquel espacio reducido.

A la altura de Motrico se empieza a oir un pequeño hilo de voz tímida, que tararea casi imperceptiblemente una canción conocida, un segundo más tarde el hilo de voz se hace más y más grande. No solo se acoplan nuestros cuerpos sino también nuestras cuatro voces. Al rato una nueva voz aguda y suave se une al cuarteto, es la copiloto.

Surgen mágicamente los armónicos, todo vibra, se agranda, y por si fuera poco, entra el piloto, un cuerpo grande, robusto, con una voz potente, poco usual grave y firme.

Todas las voces, cada una con su personalidad se oyen como una sola, que llena el espacio, todo lo que nos rodea parece querer contribuir a este para nosotros, gran concierto: el motor del coche, con su ritmo, el paisaje con sus colores. Todo rebosa energía, todo está vivo. Al fondo un peñasco, la canción cesa de golpe. Una palabra suena al unísono !!! Lequeitio!!!

Hoy 4 de Febrero de 1991, sentadas, tomando un café en la cocina de casa, recuerdas Ama, aquellas reuniones familiares, donde cada uno enseñaba sus canciones, canciones viejas de Lequeitio; los pequeños hacíamos verdaderos esfuerzos por aprender la letra y la melodía. Amama con sus pequeños ojos chispeantes, con su pequeña voz y una gran sonrisa, seguía el ritmo que aita y las tías marcaban. Ama asiente con sonrisa de afirmación y nostalgia mientrás abre la ventana.

SANTA AGEDA BEZPERA DEGU
EUSKALHERRIKO EGUNA...

Son los niños del pueblo, cantan y aporrean con fuerza sus makilas en el suelo siguiendo la tradición -es bonito recordar y respetar la tradición, la contribución de nuestros antepasados-. Los ojos de Ama parecen llenarse de nostalgia.

Qué dulce me sonaban vuestras vocecitas, parece que os oigo a tí y a Olatz cantando ese precioso poema de Artze "Hegoak ebaki banizkion... A veces, se me ocurre pensar cuando escucho al coro infantil de Lezo, que nuestro destino es la belleza.

Seguro, recuerdo que el cantar nos hacía sentir cosas en común, eso era importante.

Lo dices como si la música fuese un encuentro con los sentimientos- dice Ama esperando con los ojos una afirmación.

Para mí lo es, naturalmente, y creo que tu lo entiendes- Ama tararea una de aquellas canciones que a Osaba Aitor tanto le gustaban. Han pasado algunos años y durante este tiempo hemos perdido aquellas buenas costumbres.

Y ahora tú retomas el canto, imagino que algo habrá quedado de todo aquello para que vuelvas a las andadas.

Ahora de forma diferente pero imagino que con el mismo fondo.

Te veo vestida de negro en cualquier concierto de la "Coral de Cámara", o saliendo corriendo después de recoger la cocina para ir a las clases de canto o ensayando la partitura al piano entre preparar la comida y poner la mesa.

Por fín el otro día pude verte por primera vez en un concierto en la Sala Capitular de Renteria. Se hizo un gran silencio entrasteis de uno en uno, erais pocos, apenas veinte personas, os colocasteis y un señor con una voz suave nos explicaba de forma coloquial el tipo de canciones "Renacentistas"que ibais a cantar. Todos estabais preparados.

Empezó el concierto, una mujer joven nos daba la espalda, su cuerpo se movía con energía sus brazos y manos os guiaban y hacía que todo sonara al unísono; pero cual fué mi sorpresa cuando a la tercera canción empezasteis a representarla, era increible. Empezaba a suceder algo importante, las artes se fundían.

Era un buen trabajo, dirigido por una persona innovadora, fresca, viva, que busca expresar con fuerza.

Las tazas están casi vacías. El último sorbo de café.

Sabes Ama? Algunos dicen que hay muchas formas de vivir la vida. Yo digo que solo hay una: "sentir de verdad todo lo que haces".

Y cuando cantas intuyo que estás sintiendo de verdad y eso, es lo más hermoso que puede pasar."

(Lierni Fresnedo)

### *ARRUABARRENA Idoia*




**Oreretan jaio zen. Bederatzi urte zituela hasi zen ikasten solfeoa. Hamahiru urte bete eta berehalaxe Donostiako Udal Kontserbatoriora joan zen solfeoko ikasketak jarraitzera eta Oreretan, berriz, flauta ikasten hasi zen sortu berria zen "Errenteria Musikal" akademian.**

**Bertako orkesta eta bandan jotzen zuen. Gero, ikasketa sakonagoak Donostiako Kontserbatorioan jarraitu zituen eta gaur egun ere bertan dabil zortzigarren maila egiten. Marta Cocho da bere irakaslea.**

**Irakasle titulua, duela bi urte atera zuen eta gaur egun goi mailako titulua ateratzeko prestatzen ari da.**

**Zazpi urte zituenenan Orereta abestaldean abesten hasi zen eta Oinarritik pasa eta gero orain Andra Mari Abesbatzan abesten du.**

**Lezo, Usurbil eta Zurriolako Musika Eskoletan irakasle dugu egun.**

## *AYERDI Jose Mª*



*"Gipuzkoako Koru Federazioaren Zuzendaritza"*

**Lezon jaio zen 1948ko otsailaren 26an. Musikarekiko bere zuzeneko lotura 1987.az gerokoa da, "TXINPARTA" Koruaren lehendakaritza proposatu ziotenetikoa. Hori dela eta, koru- musikarekiko bere zaletasuna hazten doa, eta batipat haur- abesbatzenganakoa. 1989an, bailarako haur-abesbatzen TTOPAKETA Lezon ospatzen zela eta, bailarako ordezkari izendaturik suertatzen da, eta Gipuzkoako Koruen Federazioko partaide bilakatzen da. 1990 urtean, eta Gipuzkoako Koruen Federazioko junta berria eratzeko hauteskundeak medio, bertako lehendakariorde izendatzen dute, eta zenbait hilabete geroago Euskal Herriko Federazioko partaide.**

**Bere lana, federazioko bere karguaz gain, haurkoruen iharduketa eta garapena sustatzean oinarritzen da. Eginbehar hau gainditu gabeko eginkizuntzat jotzen dute ahobatez musikan adituak diren guztiek.**

**Bere helburua epe laburrera, baliabide tekniko eta ekonomikoak lortzea da, haur-koruek ahalik eta musika mailarik hoberena lor dezaten, Euskadin eta Euskaditik at balio errekonozitua bilakatuz.**

**Eta gauza segurua da helburu hori erdietsiko dutela beraren eta Zuzendaritzako bere lankideen artean, gogor ari bait zaizkigu lanean Azpeitian (Federazioaren egoitzan), hau lehenbaitlehen errealitate bihur dadin.**

Nació en Lezo el 26 de Febrero de 1948. Su vinculación directa con la música data del año 1987 cuando le propusieron la Presidencia del Coro "TXINPARTA". A raiz de ahí su afición por la música coral va creciendo al igual que su interés por la problemática de los coros, especialmente de los coros infantiles.

En 1989, y con motivo de la TTOPAKETA para coros infantiles de la zona (bailara) celebrada en Lezo, se le designa representante de la misma y pasa a formar parte de la Federación de Coros de Guipúzcoa. En el año 1990, y coincidiendo con las elecciones para constituir la nueva junta de la Federación de Coros de Guipúzcoa, sale nombrado vicepresidente de la misma y meses más tarde se le designa miembro de la Federación de Euskal Herria.

Su trabajo, además de su cargo federativo, se basa en fomentar la actividad y desarrollo de los coros infantiles, tema en el que los técnicos coinciden en consideralo como "asignatura pendiente" desde hace muchos años.

Su objetivo a corto plazo es conseguir los medios técnicos y económicos para que los coros infantiles puedan alcanzar el nivel óptimo de musicalidad y convertirse en un valor reconocido dentro y fuera de Euskadi.

Objetivo seguro de alcanzar por él y sus compañeros de la Directiva que desde Azpeitia (pueblo donde está ubicada la Federación) trabajan incansablemente para que esto sea una realidad lo antes posible.

## *ARRIZABALAGA Gotzon*



**Lezon jaio zen 1961ko Martxoaren 4ean. Musikarekin bere lehen harremanak ezaguera izan orduko eduki zituen, etxean bere osaba Xabierrek jotzen zuen txistuaren doinua entzuten zuen garai haietatik, edota jai-bazkari edo afarien ondoren sarritan familia osoak abotsetara kantatzen zuenetik.**

**Nostalgiaz gogoratzen ditu, olentzero-kantuak abotsetara kantatzen zituen Eguberri haiek. Hantxe ari zen, zalantzarik gabe, gero urteetan aurrera bere fruituak emango zituen musikaren hazia ernetzen.**

**Gero, zazpi urte inguru zuela, Don Inazio Esnal apaiz-organistarekin hasi zen, herriko beste haur askorekin batera, solfeoa ikasten, eta Parrokiako Koruan kantatzen, duela gutxi arte bertako partaide izan delarik. Don Inaziok ematen zituen haietaz aparte, sekulan gehiago ez du solfeo-klaserik hartu.**

**15 edo 16 urte zuela, organoaren hartxoa sartu ztzaion, eta solfeoan zeuzkan nozio eskasekin eta Patxi Intxaurrandietaren aholkuekin hasi zen jotzen poliki-poliki, gero eta trebezia handiagoz. Garai hartatik dator J. S. Bachen musikarenganako bere amodioa eta mugagabeko mirespena.**

**Azken hiru urteotan gauzak oldarrean habailatu dira. 1988ko urtarrilean Orfeoi Donostiarrean sartu zen eta gaurregun bertan segitzen du kantatzen. 1989ko irailean Donostiako Gurutzeaga Koraleko Zuzendari izendatu zuten. 1990ko urrian Orfeoi Donostiarraren Kantu-Eskolako kantu- irakasle izendatu zuten, aldi berean kantari solista gisa Gasteizen debutatuz H. Purcell-en "Te Deum Laudamus" interpretatzen.**

**Duela gutxi prestatu du Orfeoi Donostiarraren Eskolako korua "Luisa Fernanda" zarzuela emateko, hartan ere kantari gisa aktiboki partehartu duelarik.**

**Momentu hauetan "Diluvium Mundi" izenez kantari talde bat antolatzen ari da.**

Nació en Lezo el 4 de Marzo de 1961. Sus primeros contactos con la música los tuvo desde que tiene uso de razón, cuando escuchaba el sonido del txistu que por entonces tocaba en casa su tío Xabier o cuando después de muchas comidas y cenas de festejo la familia entera cantaba canciones a voces. Recuerda con nostalgia aquellas Navidades en las que cantaban villancicos a voces. Allí estaba, sin duda germinando la semilla musical que a los años había de dar sus frutos.

Más tarde, alrededor de los siete años, empezó, como tantos otros niños del pueblo, a estudiar solfeo con el cura- organista D. Ignacio Esnal y a cantar a su vez en el Coro Parroquial al cual ha pertenecido hasta no hace mucho. Nunca más ha vuelto a recibir clases de solfeo desde aquellas que impartía D. Ignacio.

Cuando tenía 15 o 16 años le entró el gusanillo del órgano y con las pocas nociones que tenía de solfeo y con los consejos de Patxi Intxaurrandieta empezó poco a poco a tocarlo con cada vez mayor habilidad. De ésta etapa proviene su amor y admiración sin límites por la música de J. S. Bach.

Durante los últimos tres años las cosas se han precipitado de forma vertiginosa. En Enero de 1988 entró a formar parte del Orfeón Donostiarra donde sigue cantando en la actualidad. En Septiembre de 1989 es nombrado Director de la Coral Gurutzeaga de Donosti. En Octubre de 1990 le nombran profesor de canto de la Escuela de Canto del Orfeón Donostiarra a la vez que debuta en Gasteiz como cantante solista en la interpretación del "Te Deum Laudamus" de H. Purcell.

Recientemente ha preparado el coro de la Escuela del Orfeón Donostiarra para la representación de la zarzuela "Luisa Fernanda" donde asimismo ha tomado parte activa como cantante.

En estos momentos se ocupa de formar un grupo de cantantes bajo el nombre "Diluvium Mundi".



*BIDEGAIN Belen*



Lezon jaio zen orain berrogeitabost urte eta gazte gaztetandikan kantu eta dantzarekiko zaletasuna eta grina somatu zituen bere barruan.

Bere gaztaroan asko kantatzen zen bai etxean (amaren ahotsa maiz entzuten zuten, haurra lo arazteko, elizako kantak erakusteko...) eta bai herrian. Eliza zen ardatza. Solfeo eskola, Parrokiako korua eta zenbait antolaketa bere esku zeuden eta han parte hartzen zuten berak eta bere lagunak.

Hamasei urte bete ondoren Magisterio eskolan musika ikasten hasi zen eta eskolan sortutako koruan parte hartu zuen. Guzti hori balio handikoa izan zaio bere lanerako, kantua haurren munduarekin oso lotuta bait dago.

Soraluzen andereño egon zen garaietan gitarra jotzen zuen maisu bat ezagutu zuen eta berarekin ikasten aritu zen.

Geroago, Lezora itzuli eta Parrokiako koruan sartu zen. Hain atsegina izan zenez esperientzia hori Hondarribiara joan zenean koru batetako partaide izatearen beharra sentitu zuen eta Hondarribiako Eskifaia Abesbatzara jo zuen zuzenean. Hau izan da bere esperientziarik sakonena.

Maila honetako koru batean parte hartzeak aberastasun handia ematen omen du: eguneroko lana bere tirabirekin, zuzendari profesional baten eskuetan egotea, Europan zehar goi mailako koruekin parte hartzea, orkesta famatuekin munduko obra ospetsuenetarikoak prestatu eta aurkeztea... benetan zoragarria izan dela esaten digu.

Azkenik, "aurrera lezoar maiteak" hunkigarri batekin koruen munduan ilusioz beterik lan egiten ari garenok biziki animatu nahi gaitu.

*BUSTO Javi*



1949an jaio zen Donostian.

ERWIN LIST maisuarekin burutu zituen koruzuzendaritzarako ikasketak...

Medikuntza eta Kirurgian lizentziatu zen Valladoliden. Hiriburu honetan, halaber, euskal ikaslez osatutako "EDERKI" abesbatza zuzendu zuen 1971-76 bitartean.

1978an Hondarribian "ESKIFAIA" abesbatza sortu zuen, geroztik talde hau Euskal Herriko onenetarikoa izatera iritsi delarik.

1989an Lezoko anbulategian etxerako mediku dugunez geroztik sarritan eskaintzen dio bere laguntza "TXINPARTA" abesbatzari.

Nació el año 1949 en San Sebastin.

Estudió dirección coral con el maestro ERWIN LIST.

Se licenció en Medicina y Cirugía por la Universidad de Valladolid. En esta misma capital dirigió entre los años 1971- 76 el coro de estudiantes vascos "EDERKI".

En el año 1978 crea en Hondarribia el coro "ESKIFAIA" que al transcurrir de los años se ha convertido en una de las agrupaciones punteras de Euskadi.

Desde su incorporación a la consulta de Lezo el año 1989 como médico de atención primaria colabora habitualmente con el Coro "TXINPARTA".

## *CARRERA Estanis*



**Beste asko bezala, Elizako abesbatzan hasi zen, solfeo apur bat ikasten sei urte zituela. Zortzi urterekin, txistua ikasten hasi zen Joxe Anton Zapirain eta Jose Luis Gurrutxagarekin. Gero Errenteriako Periko Lizardirekin jarraitu zituen txistu ikasketak.**

**Txistu Taldearen partaide eta arduraduna aspalditik, egun bere zuzendàri dugu.**

**Donostiako Kontserbatorioan sartu eta beste ikasketak egin zituen: Armonia, Historia, Kontrapunto, Fuga eta abar.**

**Solfeoko Kurtso bereziak egin ditu, bai bertako irakasleekin bai kanpotarrekin ere (Irina Shirokij, Narcis Bonet...).**

**Txistu "goi mailako" titulua ere lortu zuen.**

**Gaur egun konposizioko ikasketak egiten ari da.**

**Txistu eta Solfeo irakaslea da Lezoko Musika Kontserbatorioan, bere sorreratik gaur arte.**

## *DOZAGARAT Lurdes*



**Lezon jaio zen 1958ko Abuztuaren 23an. Bere musikarekiko zaletasuna eskusoinuarekin (infernuko auspoarekin gure asaba zaharren esanetan) estu lotuta dago. Dirudienez, zortzi edo bederatzi urte zituelarik sorpresa galanta izan zuen Errege egun batetan. Goizez esnatu zenean maleta handi bat ikusi zuen oinetako azpian. Harriturik geratu zen, ezin bait zuen pentsatu ere maletatzar haren barruan eskusoinu apain bat aurki zitekeenik. Unetxo hura izan zen hasiera. Berehala solfeoa ikasteari ekin zion alde batetik eta soinua jotzen ikasteari bestetik.**

**Miguel Bikondoa oso soinujole ospetsua zen ordurako eta, akordeoia oparitu ziotenez, Donostian berarekin ikasiko zuela solfeoa eta akordeoia erabaki zuen familiak.**

**Bikondoarekin ikasten urte batzuk eman ondoren, Goizaldi dantza taldearekin hasi zen eta bere musika heziketari esker zenbait ekitalditan (Abesbatza eta Dantza taldearekin) parte hartu zuen.**

**Geroxeago egoera ekonomikoa bestelakoa zela eta, Lezon solfeo eta soinu ikastaroak emateari ekin behar izan zion.**

**Gaur egun Irunen bizi da eta Lezoko egoera zehazki ez badu ezagutzen ere, entzun duenez, musika gaietan orohar lorpen handiak egiten ari omen gara.**

## ELIZALDE Elisabet



Nacida en San Sebastián, realizó los estudios de saxofón en el Conservatorio Superior con el Catedrático Angel Maeztu.

Finaliza el Grado Medio en 1989 con el Profesor de Bayona René Mommero y Tcnicas Modernas de Interpretación con Manuel Mijón y Pedro Iturralde.

En Junio de 1990 aprueba la oposición para profesora del Conservatorio y solista de la Banda Municipal de San Sebastián.

Actualmente realiza estudios superiores con Manuel Miján, Catedráético de saxofón del Conservatorio Superior de Música de Murcia.

Es profesora en la Academia de Lezo desde el curso 87-88.

## ESNAL Ignacio



*"D. Inazio eta koruko abestaldea. Erdian D. Hipolito. Haiek ahotsak haiek..."*

Don Ignacio Esnal Lasa fué coadjutor de Lezo entre los años 1948-74.

Durante su permanencia de estos 26 años en Lezo, estas fueron sus actividades en lo que a música se refiere:

- Comenzó con la formación de un coro de voces blancas, niñas, que actuaba en Navidades interpretando canciones polifónicas. Pasaban la mayoría de los caseríos y todas las calles del pueblo, llegando a veces hasta Rentería y Pasajes.

- Después organizó un coro mixto, compuesto básicamente por los hombres del Coro Parroquial y voces femeninas. Este coro actuó varias veces dando conciertos en las fiestas del pueblo (Pentecostés, Santa Cruz...). Fué también este mismo grupo el que recorría las calles por Navidad.

- Al trasladarse a vivir fuera de Lezo el entonces director del Coro parroquial, Fermín Picabea, D. Ignacio se hizo cargo de su dirección.

- Al fallecer el organista de la parroquia Hipólito Gezala, ocupó su puesto en los órganos de las dos iglesias, haciéndose cargo del Coro Luis Salaberría, actual componente del Coro Easo. Para ello, previendo esta circunstancia del fallecimiento de Hipólito Gezala, aprovechó algunos año antes el tiempo libre estudiando el manejo del órgano en labor personal.

- Así continuó con las clases de solfeo y canto del difunto organista, hasta su traslado a Bidebieta. Extendió esta enseñanza de la música a las niñas, incorporándolas al coro de tiples, exclusivamente de niños hasta entonces. Fueron muchos los que así se iniciaron en los primeros conocimientos musicales.

## ESPINA Xanti



Nació en Lezo el 19 de Mayo de 1958.

Su interés por la música en general y por la música folklórica vasca en particular le llevan a introducirse en ese mundo a través del instrumento folklórico por antonomasia que es el txistu.

Las primeras nociones de este instrumento las recibe de su compañero y amigo Estanis Carrera. Más tarde, y por circunstancias accidentales se hace cargo del grupo de txistu, lo que le motiva para estudiar en serio la música y en especial este instrumento.

A los veintidos años ingresa en el Conservatorio Superior de Música de San Sebastián y de la mano de José Ignacio Ansorena acaba el grado profesional del instrumento. A partir de ahí su vocación por la música le lleva a estudiar Composición e Instrumentación con el maestro Francisco Escudero y a formarse como director de coros en los cursillos que organiza la Federación Guipuzcoana de Coros. En esta actividad ha recibido especial influencia del Director del Coro Eskifaia de Hondarribia, Jabi Busto.

En 1984 comienza su andadura como pedagogo. En 1986, y con motivo de la creación de Lezoko Udal Musika Akademia, es nombrado responsable y profesor de música de la misma, cargo que ostenta en la actualidad. Este mismo año crea el coro infantil "TXINPARTA" asumiendo desde entonces la responsabilidad de su dirección.

## *ESTANGA Oscar*



1972an jaio zen. Txikitan Pasai Antxon bederatzi urtez bizitu zen eta gero Donostiara joan behar izan zuen gaur arte.

**Trikitilarien familiakoa dugu; Tapiatarrak (Eleuterio, Juanito, Juan, Joseba), bera, oraingoz, azkenekoa delarik.**

**11 urterekin hasi zen trikitixa ikasten Eleuterio Tapia zenarekin. Astero joaten omen zen Asteasuko bere baserrira klasea hartzera. Bi urteren buruan txapelketa batetan parte hartu zuen hirugarren postua lortuz. Geroztik beste zenbait txapelketatan parte hartu du, Baliarrainen, Asteasun (3 aldiz), Zeanurin (3 aldiz)... Lortu dituen emaitzak: 5 aldiz hirugarren, behin bigarren eta beste batean txapeldun.**

**Gaur egun trikitixa ikateaz gain klaseak ematen ditu Usurbilen, Donostian eta Lezon.**

## *ETXEZURIETA Karlos*



*"Musika Banda D. Hipolitoren hileta egunean"*

*Karlos Etxezurieta Lezoko Udal Liburutegi eta Artxibategiaren arduraduna dugu. Bere eginbeharrek musikarekin zuzenean zerikusi handiegirik ez badute ere artxibategi zaharreko paperak zertxobait astinduz "LEZOAR HERRI MUSIKARIEI BURUZKO BERRIAK ARTXIBATEGI ZAHARREAN" izenburu duen lan hau luzatu digu:*

**"Euskal Herriko herri askok bezala, Lezok ere badu bere tradizio musikala, nahiz eta gai hauetan ohi denez, argibide idatzirik apenas aurkituko dugun. Baina jakin badakigu joera musikalak batez ere momentuko kultura herrikoiari zegozkienak zirela. Musika eta batez ere bere espresioa herri mailan inongo ikasketa musikal gabeko jendearen esku trebeetan egon zirelarik.**

**Herri joera musikal hauek batez ere danbolinari eta txilibiteroen eskutik datozkigu. Honela ez da harritzekoa Iztuetak (1767-1849) bere "Guipuzcoaco dantza gogoangarriak" liburuan diona: "Munduan ezagutzen diraden soñu-mota guzien artean lenengoa da damboliña..." eta aurrerago dio: "Chilibitulari eta bolin-gozo jotzaile oetacoac Guipuzcoaco erri guzietan oi ziraden chit ugari...".**

**Gure herriari dagokionez, artxibategian azaltzen diren dokumentu guziak, kejak aurkezteko, lana eskatzeko, soldatak altxatzeko, edota azken aldean Udal Bandak bizitu zituen ixtiluen berri ematen dutenak dira. Krono-**

lojikoki eta artxibategian azaltzen diren datuak ordenatuz, garai hauetako berriak azalduko ditut.

Lehenengo berria 1817. urtekoa dugu, garai hartan bertako danbolinari zen Joan Cruz Celaiak soldataren igoera bat eskatu zuen. Aurrerago badirudi jaien ospakizunetarako Udalak danbolinari eta musikari gehiago kontratatu zituela, baina kobratzeko orduan ixtiluak sortu zirela. Honelaxe, 1820ko abenduaren 21ean, Antonio Manterola danbolinari errenteriarrak San Juan eta Gurutze Donearen jaietan berak eta bere bi semeak egindako lanaren ordaina exijitzen du.

Lanen ordainak ez ziren garaiz eta ondo iristen, eta askotan bertako danbolinariak kejatu egiten ziren. 1829ko otsailaren 10ean, Jose Ramon Salaberria musikariak bere jornala eskatzen du, eta honekin batera soldataren igoera, aldameneko herrietan musikariek askoz gehiago kobratzen zutela argudiatuz. Hala ere Udalak musikalariaren eskakizuna atzera bota zuen.

Hortik aurrera holako igoera eskakizunak ugaritu egin ziren, baina normalki Udalak ez zien jaramonik egiten.

XX. mendearen hasieran, Herriko Musika Banda eratu zen, hasieran partikularki, eta laister Udalaren babesean. Banda honi buruz jaso dugun lehenengo berria 1906koa dugu. Urte horretan, hain zuzen, Donostiatik deitu bait zioten hango Euskal Jaietara joateko. Donostian ospatzen ziren jai hauetara joateko, behar beharrezkoa zen musika talde bakoitzak bere banderola edo estandartea eramatea, baina Lezoko Musika Bandak ez zuen halakorik eta hara joan ahal izateko diru bilketa bat burutu zuten 200 pezeta bilduz eta falta ziren 100 pezetak Udalari eskatuz.

Badirudi urte berean Banda Udalaren babespean gelditu zela, zeren 1907ko ekainaren 7an Lezoko alkatea zen Rejino Gezalak Bandako Zuzendaria zen Estanislao Agirrerekin zenbait istilu izandu zituen inondik azaltzen ez zen bajo batengatik.

Udal Musika Banda nahiko kalitatekoa zen, eta laister konbidaketak etorri zitzaizkion zenbait herritako jaietan parte hartzeko. Honela 1913ko otsailaren 26an, Irungo alkateak (Leon Iruretagoiena) Irunen Uztailaren 5ean eta 6an antolatutako Euskadiko zazpi probintzietako "Gran concurso regional de bandas de música" zelakora joateko arautegia bidali zuen Lezora.

1919ko otsailaren 7an musika bandaren barruan zegoen Juan Mugerzak alkatea zen Rejino Gezalari agiri baten bidez hutsik zegoen danbolinaren lanpostua eskatu zion bere 16 urtetako anaiarentzako, txilibitua oso ondo jotzen zuela argudiatuz. Urte berean, apirilaren 11n ospatutako Udal bilera batetan eskaera onartu zuten.

Baina danbolinariekin eta kontratatutako musikariekin gertatu zen moduan bi aldeen arteko istiluak sortu ziren, eta 1924ko martxoaren 5ean datatutako agiri baten bitartez, Florenzio Gezalak Bandaren Zuzendaria zenak, eta Banda osoaren izenean, soldataren igoera eta lan kondizio berriak eskatu zituen. Hortik aurrera gauzak mingostu egin ziren eta elkar zirikan ibili ziren azken batean banda desagertu arte, hau da 1925ko bigarren erdialdean.

Bukatzeko, bi urte ezberdinetan Udal Banda honen partaide izan zirenen izenak azalduko ditut:

1906. URTEA: Jose Gezala (Zuzendaria), Patricio Intxaurrandieta, Nicolas Jaca, Florentino Damborenea, Adrian Salaberria, Mateo Garbizu, Florenzio Gezala, Fidel Otegi, Jose A. Picabea, Z. Salaberria, Candido Garbizu, Leoncio Olasagasti, Manuel Gaztelumendi, J. Manuel Irastorza, Jose Picabea, Eugenio Roca, Rafael Roca, Vicente Oregui, Manuel Salaberria, Cecilio Gezala, Atanasio Berasarte, Jose Leon Gaztelumendi, Ramon Pagola.

BANDAKO MUSIKALARI ETA INSTRUMENTUEN ZERRENDA -1924-

| | |
|---|---|
| Florencio Gezala | Bonbardinoa |
| Jose L. Garmmendia | Saxofoia |
| Jose Berasarte | Saxofoia |
| Atanasio Berasarte | Kornetina |
| Fermin Picabea | Kornetina |
| Jose Picabea | Kornetina |
| Urkizu | Tronboia |
| Artola | Tronboia |
| Martin Alberdi | Tronpa |
| Aduriz | Klarinetea |
| Veintemillas | Bajoa |
| Jose L. Garmendia | Danborra |
| Txeoetxa (Errenteriakoa) | Bonbardinoa |
| Etxenike (Donostiakoa) | Errekintoa |
| Uranga (Pasaiakoa) | Erredoblantea |

*GARBIZU Tomas*



*Hona dakargu Lezoko "Seme Kuttun" dugun Tomas Garbizuri buruz "Deia" egunkarian J. A. Z. jaunak idatzi zuen artikulua; ongi laburbiltzen bait da bertan musikari hainbeste urte eskaini zizkion lezotar ospetsu honen bizitza.*

"Euskal musikaren barne barneko ahotsak inork baino hobeto ezagutu zuela Tomas Garbizuk aitortu dute askok. Jose Luis Ansorenak, adibidez, Garbizu musika herrikoiaren muinaz jabetu zela eta mami horri eransten zion gainontzekoa euskal senaren sakonetik sortutako emaitza adierazgarri zela adierazi du oraintsu.

Musikaren alor asko jorratu zituen musikagile lezotarrak, baina herri mailan ezagunena, dudarik gabe, abesbatzentzat taxutua izan daiteke. Entzulegoa zein abeslari eta zuzendariak eritzi batekoak izan dira beti Garbizuren musikaz aritzean: Zerbait berezia, aparta du. Haren obren orijinaltasuna eta berebiziko indarra ezpairik gabekoak ziren, alegia, ia denentzat.

Karakterrez ere apartekoa zen Garbizu, eta sarritan, ez zen erraza berarekin eztabaidetan edo aurrez aurre jartzea. Eritziak sutsuki agertu eta defendatzen zituen. Jatorrizko sintzeritateaz gain, bere nortasun propioaren balioaren jakitun ere bazen, eta ez da hori, ez, abiapuntu makala norberetasunari eta estilo pertsonalari eusteko orduan. Ongi zekien nora jo, eta kanpoko influentziei aterik itxi gabe, bere idazkeraren tinkotasuna eta bere euskarri estetikoen koherentzia zaindu zituen, urtetik urtera bere estiloa ukoezina finkatuz, baina aldi berean urteen joanetorriari egokituz, bilakaera zentzuduna lortuaz.

Garbizuk musika garbia ondu du, ulergarria, baina ez arrunta, ezta errazegia ere. Atsegin zitzaizkion kolorezko xinpartak, obra instrumentalean zein ahotsentzat ondutako lanetan; ezta ez zizkien muzinik egiten edukina indartzeko mesedegarri zitezkeen baliapideei ere. Musika landua, beraz, sarritan efektu handikoa, beti gogoz eta maisuki idatzia. Joskera aldetik, akatsik gabea, beti ere.

Ez da harritzekoa, beraz, gazte gaztetandik bere azken urtetaraino lehiaketetan bere maisutasuna argi nabaritzea. Azken hilabeteetan ere sariak eskuratzen ziharduen, naiz eta osasun aldetik gorabehera larri asko izan.

Lezon jaio zen, 1901. urtean, eta bertako parrokiaren abesbatzean hasi zen, oraindik akolito zelarik. Arantzazuko ikastetxe serafikotik pasatu ondoren, Donostiako Kontserbatorioan aritu zen, pianoa J. M. Iraolarekin eta armonia eta konposaketa Beltran Pagolarekin ikasi zituelarik. Madrilera abiatu zen, ikasketak osotu nahiean eta handik Parisera, Charles Lebout-en eskutik organoan trebatzera.

Ez zen edonolako organujolea izatera iritsi, dirudienez, berak inauguratu bazituen, Madrilera itzuli ondoren, San Jeronimo el Real eta Santa Teresa elizetako organoak. Donostiako Artzai Ona katedralekoa ere berak aurkeztua dugu.

El Escorial-en egiten ziren elizkizun nagusietan bera izaten zen organujole, gehienetan. Madrilen, Aita Nemesio Otaño, Jesus Guridi, Pablo Sorozabal Mariezkurrena (nahiz eta gero, elkarrizketa batean, honengandik urrun zebilela adierazi, estetika arazoetan batez ere), Gabiola eta beste musikari euskaldun askorekin harremanak izan zituen.

Landu dituen jenero guztiak ondo eginaren ezaugarria dakarkite. Ahots eta pianorako zoragarrizko literatura sortu zuen, batez ere lieder esparruan. Herriaren sormenari halako ikutu gartsua ematen bazekiela eta, bera hautatu zuten Donostiako kantu zaharrak moldatzeko. Donostiako Kanta Herrikoiak liburu aipagarria eskainiz. Horrez gainera, hainbat alor ezberdin, hainbat gune interesgarri miatu ditu, emaitza ugari eta estimagarrienak opa dituelarik.

Elizarako musikan, adibidez, "Benedicta" izeneko meza zein "Ecumenica" edo Donostiako Orfeoiak grabatu zuen "Gure Meza" oso entzunak eta atseginak dira. Guztira lau meza euskarazko testuarekin eta hiru latinezkoak egin zituen. "Danos la Paz" oratorioa, "Baso Jaun" poema, pianorako lan sakon eta lerdenak, batez ere euskal folklorean oinarrituak direnak; zinemarako musika, ahotsetarako lanak, bibolin eta orkestarako kontzertua...

Adimena eta grazia pareko zituen Garbizuk. Oraintsu kontatzen zidan lagun batek, lehen aldiz Torreviejara aurkeztu zirenean, hangoak marmarrean zebiltzala: "Euskaldun hauek ondo saiatuak datoz, baina ez diote habanerari graziarik leporatuko..." Tomas Garbizuk hango lehen saria eskuratu zuen konposizioan, eta hurrengo bizpairu urteetan ere berdin; azkenean epaimahaikoa izateko deia egin behar izan zioten, beti lehenengo sariaz jabetu ez zedin.

Tomas Garbizu 1989ko azaroaren 27an hil zen Donostian, larogeita zortzi urte zituelarik. Tomasek ohorezko aulkia izango du mende honetako euskal artisten artean, euskalduna eta artista izan bait zen, eta bietan puntarengoa.

*Tomasek bere bizitza osoan oso harreman estuak izan zituen Euskal Herriko komentu eta santutegietako fraide askorekin. Musika zubitzat zuela maiz izaten genuen Aran-*



*"Tomas Garbizuren omenaldi eguneko Meza. Guztion buru Aita Iratzeder".*

*tzazun, Estibalitzen, Lazkaon, eta nola ez, Beloken. Euskaltzaindiak plazaratzen duen "Euskera" aldizkariaren 1990eko "Separata"-tik ateratako Xabier Diartze "Iratzeder" Belokeko benediktar eta euskaltzainaren lantxo mamitsu eta hunkigarri hau dakargu zure eskuetara.*

**" - Ez zen eta ez zitaken izan bi "Tomas Garbizu"-rik.**

**Hogoi-ta hamasei edo zazpian Donibanerat etorri baitzen ihesi, zenbat ibil-aldi egin dut lau urtez harekin, itsasbazterrean!**

**Euskal-kantuez mintzo ginen; eta, nitan den Iratzedergoa, harek du egunetik egunerat moldatua.**
**"Begira nago begira, hor goiko bide berrira:**

**Noiz etorriko ote den, maitea nere herrira".**

**Bihotza zabalegi zuen Garbizu-k, zoakion lurreko- maiterik nehoiz nehun aurkitzeko.**

**Euskaldungoari emana zen, euskal-kantu ta euskal- soinuek egun guzietako gertakariez gorago eramana.**

**–Berrogoi-ta batean, udazkeneko haiz-egoaren hegaletan, joan naiz Beloken fraidetzerat; hura Donostiarat itzuli da. Ez dugu halere, geroztik, elgar ahantzi.**

**"Liturgia" berriaren egunak argitu direnean, dei egin diot; eta, nik hitzak, harek doinuak, eliz-kantu berri asko asmatu dugu.**

**Gipuzko-Bizkaian baino lasterrago hasi baiginen hemen Baionako eta Erromakoen baimenarekin, aita Lerchundik zuen (erran gabe doa) lehen euskal-meza egin. Bigarrena, haatik, Garbizuk: "Herriko Meza"; eta, bertzalde, zenbat kantu ala salmo berri, hiru bozetan!**

**Diskotan argitaratu ta zabaldu ditugun lehen sei salmoak: Garbizurenak. Nola ez aipa ere, argitu gabeak egon diren: "Nerea da zerua", "Xoriak sistu", larogoi-ta hameka orrialde dauzkan "Babiloneko" salmoa?**

**–Geroztik, Urteagarekin dugu gehienik lan egin; hemen baiginuen maiz, Donibanetik etorria. Nahitez, ahantzitxea sentitu duke Garbizu-k bere burua.**

**Euskaltzaindiko bilkura batetik ateratzean, buruz buru egin nuen karrikan harekin. Hitzik gabe, aintzinat jo zuen; eta, brist itzulirik, erran zautan: "Euskaldun prantsesak: gizon atsegiñak, bainan... hotzak".**

**Etorri zitzaitan halere, behin edo bertze, Belokerat; eta aldi batez... bazkaltzerakoan, zer ikusten du, nor ikusten? Urteaga; hura ere hor.**

**Garbizuk orduan su ta ximixt: ez zela, segur, bertze horren ondoan bazkaltzerat sartuko. Ez uste izan, halere, deus etsaigorik bazukela; baina sonulariak soinulari...**

**Zer egin? Urteaga bertze sala batean bazkalarazi, ahal ginituen ohore handienekin.**

**–Horiek hola, urteak jin urteak joan, urrundik elgarri atxikiak egon ginen Garbizu eta ni.**

**Orai zenbeit urte, Lezon eskaini diotelarik omenaldi handi bat, Donostiako Apezpikua ezin etorriz, ni (orduko aita Abadea) deitu ninduten Meza ta mintzaldi emaiterat.**

**Hor zen Garbizu, herritar guziez inguratua, lehen lerroan. Hitzaldia bururatzean, hurbildu nitzaio; eta, herritarren aintzinean, zerutiar guziak lekuko, eman diot nere besarkarik kartsuena.**

**–Joan den azaroaren 27an Donostian hil dela jakin dutanean, haren kantu hau gogoratu zait:**

**"Fededunak, ez etsi, ez ilun jar...**
**Denak xuti, gaur elgar eskutik har,**
**Kristo beti guk argi, guk indar!". "**

## *GEZALA Hipolito*



*"D. Hipolito, bere omenaldi egunean"*

"Mi memoria me permite registrar, como en un repertorio, algunos datos biográficos de un apreciado Maestro que hace poco tiempo nos abandonó para siempre y a quien debemos agradecimiento imperecedero, por su labor desarrollada durante su vida.

Hipólito Gezala o don Hipólito, como familiarmente le llamábamos, con su muerte nos dejó una herencia, que está siendo apreciada eficazmente, y es la concerniente a la música.

Como discípulo suyo que fuí en mis primeros años, no soy el más indicado para ensalzar los indiscutibles méritos de este maestro que puso a disposición de sus educandos, en los muchos años de su enseñanza musical, todo el fruto de su aptitud privilegiada. Mas siento un reconocimiento admirativo tan grande por su obra, que no encuentro frases adecuadas para glosar como se merece, la personalidad de don Hipólito. Por tanto, al aceptar la invitación de escribir algo sobre su vida, no trato de descubrir nada nuevo, pues mi ingenuidad

no llega a tanto. Simplemente es mi deseo dedicar un cariñoso recuerdo a este gran profesor, arquetipo de artista enamorado de su arte.

Era don Hipólito un sentimentalista por excelencia; la música, que es la más espiritual de las Bellas Artes, le llegaba al alma. Temperamental de por sí, ejercía una influencia manifiesta, aunque no exagerada, logrando a fuerza de constancia, dedicar mucha atención a todo lo relacionado con su profesión.

Es verdad que nadie da lo que no tiene, pero don Hipólito daba lo que tenía y ofrecía algo más. Este ofrecimiento desin-



*"Musikazale ugari D. Hipolitiren inguruan"*

teresado, era su propio sacrificio para la preparación y educación musical de la juventud.

(Qué soñadoramente pudo concebir en otro tiempo, que de resultas de este sacrificio llegase a formar una disciplinada banda musical en la vecina localidad renteriana? Y no la creó precisamente para la interpretación de alegres valses y lénguidas habaneras, sino con fines más amplios y artísticos, llegando a triunfar plenamente y consiguiendo que la industriosa Villa fuese reconocida musicalmente como localidad de primer orden.

Ligado íntimamente a esta Universidad de Lezo por naturaleza, don Hipólito era organista de la Parroquia y al mismo tiempo colaborador de la Schola Cantorum, con la que estaba totalmente identificado.

Debido a sus amplios conocimientos de los recursos del órgano, sus manos en el complicado teclado, eran una garantía del buen sentido expresivo de la música. Al oírle interpretar muchas veces al órgano la gran marcha de la ópera romántica Tannhauser, me hizo pensar en más de una ocasión en su inclinación hacia la música wagneriana.

Labor eficiente tuvo asimismo en la educación músico- vocal de los niños, con miras a cubrir el vacío que el natural declive artístico de los componentes de la Schola Cantorum habría de dejar la marcha de los años. En esta educación sí que hacía valer su autoridad paterna y amor materno de que siempre hizo gala para salir airoso de su trabajo, pues la música vocal no es tan rica en recursos como la instrumental. Era lo que se dice, un Mecenas, por sus dotes de influencia en aras del amor que profesaba por la música.

No dudo que don Hipólito, como cuantos se dedicaban a la labor educativa, conoció sinsabores y alegrías, tuvo sus días buenos y malos, mas a él, con la sinceridad que le caracterizaba en todos sus actos, nunca se le vió desanimado.

Por lo mucho que se le debía, la Schola Cantorum de Lezo y la Agrupación Musical renteriana le tributaron en su día el homenaje de cariño a que se hizo acreedor, como colaborador y director, respectivamente. Cuando vencido por el tiempo, cedió amargamente, todos cuantos le tratamos, sentimos un vacío en el corazón, como si realmente nos faltase algo muy particular nuestro. Es que don Hipólito era como un padre para todos los que fuimos sus discipulosí

Al resbalar de los años, cuando se borren los nombres que nunca debieron ser olvidados, por ser ejemplos dignos de imitación, en nuestra mente seguirá quedando grabado el nombre de quien en vida fué don Hipólito Gezala, maestro y ejemplar educador musical de varias generaciones."

**UN DISCIPULO-**
**"Lezo" Aldizkaria (1958)**

## *GEZALA Polentzi*



*"Polentzi, 1991ko Apirilaren 21ean egin zitzaion omenaldian"*

**1919ko Azaroaren 20an jaio zen. Musikarekiko zaletasuna familiagandik datorkio. Bere aitona musikaria zen, zeharkako flauta jotzen zuen. Aita, berriz, Lezoko Udak Bandaren zuzendaria zen.**

**Anaiek, Luis eta Reginok, saxofoia eta pianoa jotzen zuten. Luisek irakatsi zien solfeoa anaiarreba guztiei.**

**Polentzik, bere aldetik, laster aukeratu zuen txistua bere bizitza guztirako lagun. Txistuaren lehen eskalak Patrizio Intxaurrandietak irakatsi zizkion. Berehala, Errenteriako Alejandro Lizasorengana jo zuen. Azkenik, benetako ikasketa sakonak Donostiako Isidro Ansorenarekin burutu zituen.**

**Garai hartan bere emanaldiak herriko jaietan, plazan, Udalbatza elizaraino lagunduz eta abarretan jotzera mugatzen ziren.**

**Gerra Zibila piztu zenean, artean hamasei urte zituelarik, Santander aldera ihes egin behar izan zuen familiarekin batera. Hau bukatutakoan zazpi urtetarako soldaduzkara eraman zuten: Lizarra, Iruñea, Bartzelona eta Loiola. Ez bide zuen garai hartan txistua jotzeko aukera eta gogo handiegirik izango.**

**Gauzak "bere onera" etorri zirenean folklore eta musika munduan erabat murgildu zitzaigun Polentzi. ETORKI dantza taldearekin Parisa joan zen lehendabizi. Bi hilabetetarako besterik ez zela joango jarri omen zien baldintza. Ederki luzatu zaizkio! Berrogei urte daramatza Lezotik kanpo.**

**Lehenengo emanaldia Campos Eliseos-en izan zen. Arrakasta haundia izan zuten. Handik Londresko "The Royal Albert Hall" kontzertu areto ezagunera, Bruselasko "Teatro de la Moneda" delakora, La Hayara... Europa osoa igaro zuten.**

**OLDARRA dantza taldearekin Ameriketara joan zen sei hilabetetarako: Filadelfia, Washington, New York, Las Vegas... Kontzertuak hiri erraldoi hauetako teatro nagusienetan izaten ziren. Arrakasta haundiena New Yorkeko "Carnegie Hall"-en izan zuten. San Franciscon ere bai; txistuaz kontzertua hasi eta behin baino gehiagotan geldi arazi zuten txaloka. Handik Idahora joan ziren. Euskaldun asko bizi diren lurraldeak haiek! Kanadan ere izan ziren; baita Hollywood-en ere. Artista asko ezagutu zituen han: Marlon Brando, Jacques Bergerac, Liz Taylor, Brigitte Bardot. Honen filme batetan parte hartu zuen.**

**Eisenhower presidentea ere ezagutu zuen; Washington-en kontzertua eman ondoren zorionztera joan zitzaion eta bere rantxora gonbidatu zuen afaltzera. Afal ostean presidentearen emaztearekin aritu zen dantzan. Beatriz eta Irene printzesek ere beren jauregira gonbidatu zuten behin bazkaltzera.**

**Tunez-ko Burguiba presidentearekin ere izan zituen harremanak.**

**Gaur egun Estatuko Dantza Akademiako zuzendari den Mariemma espainiar dantzariarekin Europan zehar ibilia da. Carmen Amayarekin ere bi aldiz atera zen txistua jotzen. Artista gehiagok ere deitzen zuten baina ezin izaten zuen denekin kunplitu, bat ala besteren artean aukeratu behar izaten zuen. Josefina Bakerren kantaldietan ere eman izan ditu kontzertuak.**

**Nazioarteko bi txapelketatan hartu du parte Frantzia ordezkatuz eta bietan garaile izan dugu. Lehenengoa Tunezen izan zen. Hemezortzi naziotako musikarien arteko lehian aritu ziren. Hurrengoa Hungarian.**

**Halere, daukan saririk haundiena Parisko Udalak emandako Arte, Zientzia eta Letretako domina da.**

**Diskagintzari dagokionez lan ederrak plazaratu ditu. Columbia etxearekin bi grabatu zituen, Canadan bat eta Prisen lau, beraz zazpi guztira.**

Nació el 20 de Noviembre de 1919. La afición por la música le viene de familia. Su abuelo era músico, tocaba la flauta travesera. El padre era el director de la Banda Municipal de Lezo. Los hermanos Luís y Regino tocaban el saxofón y piano. Luís se encargó de enseñar el solfeo a todos los hermanos.

Polentzi, por su parte, en seguida escogió el txistu como el instrumento que le iba a acompañar durante toda la vida. Las primeras escalas de txistu le enseñó Patricio Intxaurrandieta. En seguida comenzó a recibir clases de Alejandro Lizaso de Rentería. Por último, las verdaderas lecciones las recibió en San Sebastin con Isidro Ansorena.

En aquella poca sus actuaciones se limitaban a tocar en la plaza del pueblo en las fiestas patronales o a acompañar a la Corporación Municipal camino de la Iglesia.

Cuando tenía 16 años estalló la guerra civil y tuvo que escapar con su familia a Santander. Al terminar esta, tuvo que cumplir el servicio militar durante 7 años en diversos lugares de la península: Estella, Pamplona, Barcelona y Loyola. En semejante situación no tenía, evidentemente, ni tiempo ni ganas de tocar el txistu.

Al volver todo a la "normalidad", Polen se integró en el mundo de la música y el folklore. En primer lugar fué a París con el grupo de baile ETORKI. En principio el contrato hablaba de dos meses, pero la realidad es que ya lleva 40 años por aquellas tierras.

El primer concierto de esta gira lo dió en los Campos Eliseos. Tuvo mucho éxito. De allí pasó a la famosa sala de conciertos londinense "The Royal Albert Hall", al "Teatro de la Moneda" de Bruselas, a La Haya... Recorrió toda Europa.

Con el grupo de baile OLDARRA fué a América para 6 meses: Filadelfia, Washington, New York, Las Vegas...Los conciertos solían ser en los teatros de estas grandes ciudades. El mayor éxito lo tuvieron en el "Carnegie Hall" de New York. En San Francisco tuvo que parar el concierto para responder a los aplausos de la audiencia. De allí fueron a Idaho. También estuvieron en Canada y Hollywood. Aquí conoció a muchos artistas: Marlon Brando, Jacques Bergerac, LizTaylor, Brigitte Bardot. Llegó a intervenir en una película de esta famosa actriz.

Conoció al Presidente Einsenhower; después de ofrecer un concierto en Washington, el Presidente fué a felicitarle y le invitó a cenar a su rancho. Después de cenar estuvo bailando con la mujer del Presidente. Recibió tambin la invitación de las Princesas Beatriz e Irene para almorzar en su castillo.

Conoció personalmente al Presidente de Túnez Burguiba.

Ha recorrido toda Europa con la Directora de la Academia de Baile del Estado Español Mariemma. Con Carmen Amaya también ha intervenido en dos ocasiones. Ha recibido invitaciones de otros muchos artistas, aunque debido a sus obligaciones no ha podido atender a todos. Ha participado también en diversos conciertos de Josefina Baker.

Ha representado a Francia en dos concursos internacionales consiguiendo en ambos el Primer Premio. El primero fué en Túnez, participando entre musicos de 18 países. El siguiente se celebró en Hungría.

De todos modos, el mejor premio que posee es el que le otorgó el Ayuntamiento de Paris: La Medalla del Arte, las Ciencias y las Letras.

En lo referente a la discografía, ha sacadao al mercado excepcionales trabajos. Con la casa Columbia grabó dos discos. En Canada grabó otro, y finalmente cuatro en Paris.

## *GURRUTXAGA Jose Luis*



*"Lezoko txistulari taldearen hastapenak"*

**Lezon jaio zen 1945ko Ekainaren 27an. Manuel eta Karmenen semea, ezkondua eta hiru seme-alaben aita. Lanbidez, ebanista. Egun Oreretan bizi da.**

**Zortzi urte zituela hasi zen solfeoa ikasten. Artean irakaslea Hipolito Gezala zen. Hiru urtez, gutxi gora behera, egon zen berarekin ikasten, baina ordurako adinean aurreratu xamarra zenez don Hipolito, hil egin zen. Irakasle onaren fama izan du beti don Hipolitok. Berarekin ikasi zuten ikasleek askotan esaten dutenez, eguneroko saioa hasi baino lehen letania bera (erderaz noski) errepika erazten omen zien ikasleei:**

**-Don Hipolitoren galdera: ¿Qué hay que hacer para aprender solfeo?**

**-Ikasleen erantzuna: Venir todos los día a la una con ganas de estudiar.**

**Don Hipolito hil eta gero D. Inazio apaiza hasi zen solfeoa irakasten.**

**Betidanik du atsegin musika. Behin batean bere anaiak txistu bat eraman zuen etxera. Jose Luisek hemezortzi urte zituen orduan, eta txikitan ikasitako solfeoaz baliaturik jotzen hasi zen. Lezoko txistulari zen Xabier Pikabeari eskatu zion irakats ziezazkion txistuaren notak. Hau behar zuen guztia irakasteko prest agertu zen eta honela, larunbatetan, lagun taldetxo bat J.O.C.-ek Bikarioenean zituen lokaletan biltzen hasi zen. Debuta jaietan, katekesiak antolatzen zuen desfilean izan zuten. "Coral Pasaitarra"rekin ere jo zuten. Urte haietan dantza taldea martxan jarri zen; hauekin jotzeko txistulariak behar zirenez, José Antonio Zapirain eta bera eskaini ziren lan hori betetzeko. Xabierrek asko lagundu zien, bai partitura, liburu edo aholkuekin eta batipat animoarekin.**

**Laguntza hauetaz landa autodidaktatzat hartzen du bere burua, ez bait du inongo akademia edo kortserbatoriotan ikasi inoiz.**

**Musikarako betidanik izan duen grinak beste bide bat ere hartu zuen gaztaroan. Marixabel Odriozolarekin batera"OLDARKOI" bikotea sortu zuen. Gitarra eta txistu laguntzaz abesten zuten. Ezin esan originala ez zenik bikotea!**

**Parrokiako abestaldean jarraitu du geroztik gaurdaino.**

**Irakaskuntzan ere saiatu zen baina nahiko egoera kaxkarrean, inongo laguntzarik gabe... Dena dela, honen ondorioz "Lezoko txistulari taldea" sortu zen, gaur egun Jose Luis talde honetako partaide dugularik. Errenterian "Agustinetako txistulari taldea"ren sorreran ere badu zer ikusirik.**

**Bere ustez, gaur egun Lezo musika aldetik oso indartsu dabil. Ez bide zuen inoiz pentsatuko garai hartako talde hark ereindako haziak honelako fruitu eta emaitza onak emango zituenik.**





*"Itxaropena Otxotea"*

**Hiru dira, Altza herriko Zortzikote gero eta ezagunago horretan partaide diren lezotarrak: Jose M. Garmendia, Kepa Pikabea eta Xanti Zugasti.**

**Iharduketa musikalari hertsiki lotutako hiru izen. Abesbatza desberdinetan garatu dute iharduketa musikala: Donostiako Kamara Korua, Koru Pasaitarra, Santa Zezilia Korua, Itxaropena Zortzikotea, Lezoko Koru Parrokiala, Altzako Koru Parrokiala...**

**Hiru musikari on hauen iharduketa musikalik sakonena agian, gaurregun Santa Zezilia abesbatzan eta Itxaropena Zortzikotean burutzen dute.**

**Zortzikote honek 1968. urtean ekin zion bere koru iharduketari, bestegabe lagun talde gisa, dei egiten zieten gizarte-ospakizun eta ekintza kulturaletan parteHartuz. Lagun talde honen ernemuina Altzako San Martzial Koru Parrokiala izan zen, Altzako herrian koru-zaletasunaren eragilea, beste parrokia asko izan diren bezala Euskadin barrena.**

**1972. urtean Radio San Sebastianek eratutako txapelketan parteHartu zuen, eta Lehen Saria lortu. Halaber, 1975.ko Euskal Jaietan Hondarribian ospatutako talde-txapelketan kalifikaziorik gorena eskuratu zuen.**

**Gero eta emanaldi gehiago eskatzen ziotenez, bere errepertorioa zabaldu eta Zortzikotearen moldakera hartu zuen.**

**Euskal Telebistaren koru lehiaketan parteHartu zuen kalifikazio bikaina lortuz.**

**1988. urtean Llangollengo (Gales) Nazioarteko Lehiaketan parteHartzeko hautatu zuten, Herri Kantuen modalitatean, nazioartean ospea ongi frogatua zuten 34 abesbatzaren artean 10 postua lortuz.**

**Kultur Elkarteak, Udalak, Diputazioak eta Konbentzio eta Kongresu Eratzaileak dira beren emanaldiak sarri eskatzen dituztenak.**

**Gaurregun gogor saiatzen ari dira bere entsaioetan, errepertorioa zabaltzen eta hobetzen.**

**Hauek osatzen dute gaurregun:**
**TENOREAK:**
**José Luis Murua (Altza)**
**Luis Latierro (Donostia)**
**Iñaki Goñi (Errenteria)**
**J.Mª. Garmendia (Lezo)**
**Kepa Pikabea (Lezo)**
**Iñaki Arzalluz (Errenteria)**

*B*AXUAK:
Xanti Zugasti (Altza-Lezo)
Martin Elizasu (Altza)
Josetxo Olasagasti (Donostia)
Imanol Elizasu (Altza)

**ZUZENDARIA: Imanol Elizasu**



*"Santa Cecilia Abesbatza. Tartean Lurdes, Joxe Mari, Kepa eta Xanti".*

Tres son los lezotarras que forman parte de este cada vez ms conocido Otxote del pueblo de Altza: Jose Mª. Garmendia, Kepa Pikabea y Xanti Zugasti.

Tres nombres unidos estrechamente a una actividad musical que han desarrollado en distintas formaciones corales: Coral de Cámara de San Sebastián, Cora Pasaitarra, Coral Santa Cecilia, Otxote Itxaropena, Coro Parroquial de Lezo, Coro Parroquial de Altza ...

Quizás la actividad musical más intensa de estos tres buenos músicos la lleven a cabo en la actualidad en la Coral Santa Cecilia y el Otxote Itxaropena.

Este Otxote comenzó su actividad coral en 1968 como simple cuadrilla de amigos participando en distintos acontecimientos sociales y actos culturales que reclamaban su presencia. El embrión de ésta cuadrilla fué el Coro Parroquial de San Marcial de Altza, motor de la afición coral del pueblo de Altza, como tantas otras parroquias lo han sido en general en Euskadi.

Participó en el concurso de cuadrillas organizado por Radio San Sebastián en 1972 obteniendo el Primer Premio. Asímismo, en el concurso de cuadrillas celebrado en Hondarribia con motivo de las fiestas Euskaras 1975, obtuvo la máxima calificación.

Ante la constante demanda de actuaciones amplió su repertorio y adoptó la modalidad de Otxote.

Participa en el concurso de coros de Euskal Telebista obteniendo una notable calificación.

En 1988 es seleccionado para participar en el Concurso Internacional de Llangollen (Pais de Gales), en la modalidad de Canción Popular, obteniendo el 10º puesto entre 34 masas corales de acreditado prestigio internacional.

Asociaciones Culturales, Ayuntamientos, Diputación y Organizaciones de Congresos y Convenciones solicitan sus actuaciones con asiduidad.

En la actualidad intensifica sus ensayos para ampliar y mejorar su repertorio.

Estos son en la actualidad sus componentes:

TENORES:
Jos Luis Murua (Altza)
Luis Latierro (Donostia)
Iñaki Goñi (Errenteria)
J.Mª. Garmendia (Lezo)
Kepa Pikabea (Lezo)
Iñaki Arzalluz (Errenteria)

BAJOS:
Xanti Zugasti (Altza-Lezo)
Martin Elizasu (Altza)
Josetxo Olasagasti (Donostia)
Imanol Elizasu (Altza)

DIRECTOR: Imanol Elizasu

## *INTXAURRANDIETA Patxi*



Lezon jaio zen 1953ko Uztailaren 14ean. Musikarako joera txikitandik datorkio. Bere garaiko beste mutiko gehienek bezala Elizaren inguruan, D. Inazio Esnal apaizarekin, hasi zen solfeoa ikasten. Gogoan du oraindik nola hunkitzen zuten solfeo gelan zegoen erregistrorik gabeko armonio txiki haren erraietatik ateratzen ziren armonia haiek (orduan misteriotsuak, eta gaur egun ere ez gutxiago omen). Hamalau bat urte zituenean, Donostiako Apaizgaitegian pianoa ikasten hasteko aukera izan zuen (musikarako, besteak beste, oso leku aproposak ziren orduan seminarioak). Ordurako, dena den, Lezoko bi elizetako organoetan nahiko orduak sartuak zituen. Jose Leon Urreta izan zen bere lehen irakaslea. Hau ezagunagoa zen orduan, arratsaldez plazaratzen zen "Unidad" egunkariko musika orrialdeaz arduratzen zelako. Gizon ona bera!

Hamasei urte zituelarik, Juan Padrosa, Donostiako Kontserbatorioko katedradunarekin hasi zen programa ofizialari jarraituz pianoa sakonki ikasten. Ordu asko sartu behar ziren orduan!

Zortzigarren maila gainditu eta berehalaxe soldaduzkara joan behar izan zuen. Urte t'erdiko beharrezko etenaldia.

Handik itzuli zenean, organoa (betidanik hain gogoko zuen instrumentua) ikasten hasi zen Esteban Elizondo, Donostiako Kontserbatorioko organo katedradunarekin. Erdi mailako ikasketak burutu ondoren planto egin zuen. Goi mailako ikasketak egiteak profesionalizatzea eskatzen du, eta bere ogibidea ildo horretatik ez zihoanez, "hobby" bezala planteatu zuen musika bere bizitzan.

Egungo bere eginbeharrek ez diote denbora gehiegirik uzten musika behar bezala lantzeko. Hala ere, beti ateratzen du tartetxoren bat herriko parrokiako abestaldeari organoz laguntzeko edota, besterik gabe, Gurutze Santuaren Elizako bakardadean "Merklin" zoragarri horren sakonetik haurtzaroan hainbeste hun-kitzen zuten akorde misteriotsu haien antzekoak ateratzeko.

*LARREA Araitz*



1970ko Azaroaren 11an jaio zen Lezon. Hamaika urterekin solfeo ikasten hasi zen Errenteriko Musika Kontserbatorioan eta Txistua Lezon.

Hasiera batean, Xanti Espina izan zuen txistu irakaslea.

Gaur egun txistuko 6. maila egiten ari da. Estanis Carrera da bere Irakaslea. Bidebatez, Donostiako Kontserbatorioan erdi mailako ikasketak egiten ari da.

3 urte daramatza Lezoko Udal Musika kontserbatorioan maisu praktikak egiten.

Nació en Lezo el 11 de Noviembre de 1970.

Con 11 años comenzó sus estudios de solfeo en el Conservatorio de Música de Rentería y los de Txistu en Lezo.

Al comienzo Xanti Espina fue su profesor de txistu.

Hoy en día est haciendo 6º Curso de Txistu y Estanis Carrera es su profesor. A su vez, está en el Conservatorio Superior de Donostia realizando los estudios de grado medio.

Lleva 3 años haciendo prácticas de profesorado en el Conservatorio Municipal de Lezo.

*LOPETEGI Lurdes*



Euskal kulturarekin zerikusia zuen guztia txit gogoko zuen familia batetan hazi zen Lurdes. 8 urte zituelarik bere gurasoen eraginez euskal dantzak eta eskusoinua ikasten hasi zen. Gogoan du oraindik zein gogoko zituen orduan instrumentu xarmant horren doinu hunkigarri haiek.

Bere lehen musika urratsak Irungo Akademia batetan eman zituen Rosa Mª Arruabarrena irakasle minaren laguntzarekin. Beregandik jaso omen zuen instrumentuaren barne muina; teknika, aldiz, Miguel Bikondoak irakatsi zion, artean akordeoi irakasle ospetsuenetarikoa zenak.

Honela eman zien hasiera solfeo, koral, armonia eta akordeoi ikasketa sakonei. Bikondoaren akordeoi orkestako partaide genuelarik Euskal Herri eta Europa mailako zenbait lehiaketa, emanaldi eta kontzertutan partehartzera iritsi zen.

Hamazazpi urte bete zituenean herriko zenbait haurrei arratsaldez irakatsi zien solfeoa eta akordeoia.

Bere bizitzan musika garrantzi handia izan duen zerbait izan dela esaten digu, baina hala ere ez omen da inor behartu behar gogoko ez duen zerbait ikastera. Esperientziaren hitza, antza.

## *MARTIARENA Luis*



*"Errenteriako Musika Banda.Goiko iladan ezkerretik seigarrena, Luis Martiarena".*

Errenterian jaio zen 1917. urtan. Musikarako bere zaletasuna, gehienetan gertatu ohi den bezala, haurtzaroan eta gazte denboran bizi izan zuen giroari hertsiki loturik dago. Parrokiako koruan kantatzen zuen, eta Errenteriako Musika Bandak eskeini ohi zituen kontzertuetan entzule saiatua zen. 1930. urtean solfeoa eta instrumentua ikasten hasi zen Errenteriako Akademian bi irakasle onekin. Solfeo irakaslea Hipolito Gezala J. lezotarra zen, hainbat urtetan zehar, besteak beste, Lezoko parrokiako organista izan zena. Gezala J. Errenteriako Udaleko funtzionarioa zen, Musika Akademiako Zuzendari-ordekoaren karguarekin, eta musika irakasle. Zuzendari kargua Iraola Jk zeukan.

Solfeo-ikasketetan nahiko maila lortu zuenean, Luis klarinetea ikasten hasi zen akademia berean. Ikasle abantailatsu gisa nabarmendu zenez, akademia bertako bandan sartu zen, txikitan hainbat aldiz entzundako kontzertuetan partehartzeko ametsa beteta ikusi ahal izatearen ilusio osoaz.

Bandan sartu eta berehala, "Los Incansables" banda edo txarangatik dei egin zioten. Hemen izan zuen Rejino, Luis eta Sabino Gezala anaiak, hirurak Lezoko semeak, ezagutzeko aukera.

Gero Donostiako Banda Munizipalean egon zen, Zuzendaria Ariz J. zela. Desagertutako Gran Kursaalean egiten zituzten entsaioak.

Donostiako Bandarekin bere konpromezua bukatzean, Irungora pasatu zen. Talde honetan lankide izan zuen gaurregun konpositore ospetsua den Jose M. Gonzalez Bastida J.

Bizitzan izaten diren gorabeherak medio, musikaren praktika utzi egin behar izan zuen beste eginkizun batzutan aritzeko. Gaurregun musikaren panorama Lezon, etorkizun handi eta oparoduna iruditzen zaio. Asko egin den arren, ez da "lortu dugu" esatearen aldekoa, zeren urterik urte aurreratzen joan beharra bait dago eta gazteria motibatu beharra, zeren eta azken finean, gaur egin bide den lan guztiaren etorkizuna beraiek bait dira.

Nació en Rentería el año 1917. Su afición por la música, como ocurre en la mayoría de los casos, está estrechamente relacionada con el ambiente que vivió en la niñez y juventud. Cantaba en el coro parroquial y era un asiduo oyente de los conciertos que la Banda de Música de Rentería ofrecía habitualmente. El año 1930 comenzó a estudiar solfeo e instrumento en la Academia de Rentería con dos buenos profesores. El profesor de solfeo era el lezotarra D. Hipólito Gezala que durante tantos años fué entre otras cosas organista de la Parroquia de Lezo. D. Hipólito era funcionario del Ayuntamiento de Rentería con el cargo de Sub-director de la Banda de Música y profesor de solfeo. El cargo de Director lo ostentaba el Sr. Iraola.

Una vez que adquirió el suficiente nivel de conocimientos de solfeo, Luis comenzó a estudiar el clarinete en la misma academia. Al destacar como alumno aventajado, ingresó en la banda de dicha academia con enorme ilusión al poder realizar el sueño de participar en los conciertos que tantas veces había oido años atrás.

Al poco de ingresar en la banda le sorprendieron llamándole de la banda o charanga "Los Incansables". Aquí tuvo la suerte de conocer a los hermanos Gezala Regino, Luis y Sabino, todos ellos hijos de Lezo.

Despus estuvo en la Banda Municipal de San Sebastián, teniendo como Director al Sr. Ariz. Hacían los ensayos en el desaparecido Gran Kursaal.

Al terminar su compromiso con la Banda de San Sebastin pasó a la de Irún. En esta agrupación tuvo de compañero al que hoy es famoso compositor D. Jos Mª Gonzlez Bastida.

Por avatares de la vida tuvo que abandonar la prctica de la música para dedicarse a otros menesteres.

El panorama actual de la musica en Lezo le parece de lo más prometedor.

Aunque se ha hecho mucho, no aconseja que se emplee la expresión "misión cumplida", pues año tras año hay que ir superándose y motivando a los jóvenes que al fin y al cabo son el futuro de toda la labor que se está haciendo en el presente.

## *MITXELENA Beatriz*



Nació en Rentería el 11 de Abril de 1966.

A los doce años ingresó en el Conservatorio Superior de Música de San Sebastián. Realizó sus estudios de acordeón con Mikel Bikondoa.

A los quince años formó parte de la orquesta de acordeones del Conservatorio Superior de Música, dando conciertos por toda la provincia así como en el extranjero: Wiesbaden (Alemania), Folkestone (Inglaterra) obteniendo aquí en octubre de 1984 la Copa del Mundo organizada por la Cofederación Internacional de Acordeonistas (C.I.A.).

Su inquietud musical le lleva a formar parte de la Coral Andra Mari de Rentería.

En el año 1988 ingresó como pofesora de acordeón en el Conservatorio Municipal de Música de Lezo, así como en el Conservatorio elemental de Pasaia.

## *ODRIOZOLA Mª Isabel*



***"OLDARKOI bikotea"***

Su afición por la música se remonta a su niñez. Como tantos otros niños del pueblo las primeras nociones de solfeo las recibió de D. Ignacio Esnal. Inmersa en el revivir cultural de los años sesenta, comenzó a actuar en público formando con Jos Luis Gurrutxaga el dúo "OLDARKOI". Ello les exigió una cierta preparación, tanto instrumental como vocal.

Al paso del tiempo el dúo se deshizo, pero su "gusanillo" musical continuó, lo que hizo que se incorporara a la coral Santa Cecilia, a la cual ha pertenecido hasta la fecha.

Actualmente no vive en Lezo, pero sigue de cerca los acontecimientos que transcurren en su pueblo. Observa que hay una mayor inquietud musical y mejor preparación técnica puesto que esta, gracias a la incansable labor de unas cuantas personas, se encuentra al alcance de todo aquel que la desee.

## *OLASAGASTI Milagros*



Nació en San Sebastián el 30 de Enero de 1964. Comenzó sus estudios musicales a la edad de 7 años en el Conservatorio Superior de Música de San Sebastián.

Cursó los estudios de violín con la catedrática Mari Angeles Etxebeste hasta obtener el titulo de Grado Medio.

Más tarde hizo los estudios de viola con el Profesor Catedrático Roberto Muño.

Fué componente de la Orquesta del Conservatorio de San Sebastián desde su fundación.

Es profesora de la Academia de Música de Lezo. En Junio de 1990 obtuvo por oposición la plaza de profesora de violín en el Conservatorio elemental de Pasaia- Trintxerpe.

## *PARROKIAKO ABESTALDEA*



*"Parrokiako Abestaldea. Erdialdean Tomas Garbizu. Bere eskuinean Joxe Miguel Amiano, Zuzendaria"*

**Lezon betidanik izan den Parrokiako koruaren etenaldi luze samar baten ondoren, birsortu zen orain hemezortzi-hogei urte egun, besteak beste, igandeetako Meza Nagusian abesten duen talde eder hau.**

**Hogeitamabost-berrogei abeslari izatera inoiz iritsi badira ere gaurregun ez dira hogei baino gehiago. Krisialdia hemen ere, antza.**

**Bere eginbehar nagusia Lezoko elizako liturgi- funtzioetan parte hartzea bada ere, beste zenbait tokitan ere abestuohi du, hala nola:**

**- Donostiako Santa Maria Elizan hilaren lehen igandean abesten zen irratiz emandako mezatan, hiru aldiz.**
**- Jesuiten Elizan, behin; hau ere irratiz emana.**
**- Estibalitzen, behin.**
**- Larraitzen, behin. Zumarragan, behin.**
**- Lazkaon, bi aldiz; telebistaz emandakoak biak.**
**- Allerru dantza taldeari lagunduz Gipuzkoako zenbait herritan eskainitako emanaldietan.**
**- Errenteriako Gabon Kanta lehiaketan ere sarritan. Iazko Musikasten Tomas Garbizu oroituz.**

**Aipamen berezia lerro hauetan Jose Miguel Amaiano Zuzendariarentzat. Bere lan nekaezinari esker (eta hau idazten duenak ondo daki hori) dugulako Lezon igandero eta bereziki ospakizun berezietako elizkizunak hain apainki jazten dituen abestalde saiatu hau.**

## *RODRIGUEZ Alfredo*



Nace en Donostia. Inició los estudios de Oboe en el Conservatorio Superior de Música de Donostia con D. Antonio Cortés y Armonia con D. Francisco Escudero. Al finalizar los estudios de oboe obtiene en Premio PAULINO CABALLERO.

Se traslada a Barcelona donde obtiene por oposición la plaza de oboe solista de la Orquesta Sinfónica del Gran Teatro del Liceo de Barcelona.

Ha sido también oboe solista de la Orquesta Sinfónica de Bilbao.

Ha interpretado numerosos recitales así como Conciertos con las Orquestas de Barcelona, Bilbao, Pamplona y Donostia. Actualmente es Catedrático del Conservatorio Superior de Música de Donostia y Solista de la Orquesta del Conservatorio.

## *SALABERRIA Joxe Ramon*



Nació en Lezo el 5 de Junio de 1968.

Cuando comenzó a estudiar música, hace aproximadamente diez años, la situación musical del pueblo era, en su opinión, relativamente precaria. No existía, por supesto, ningún tipo de academia ni lugar donde poder estudiar música con cierta garantía. Sí existía, sin embargo, y sigue existiendo, el coro parroquial además de un muy activo grupo de txistularis que se dedicaba fundamentalmente a tocar en las fiestas locales y a acompañar al grupo de baile.

Para realizar los estudios musicales tuvo que trasladarse a Rentería, puesto que, como se ha indicado, en Lezo la actividad musical se ceñía prcticamente al mundo del txistu.

Sus primeras nociones de música las empezó a adquirir a los doce años; hasta entonces no había tenido el placer de escuchar ningún instrumento aparte del txistu, y por consiguiente no conocía las diferencias entre los distintos instrumentos ni, por supuesto, la función de cada uno de ellos dentro de la orquesta.

Su, para entonces, difunto padre era muy aficionado a la música y además de pertenecer al coro parroquial tocaba el atabal en la banda de txistularis. Esa indirecta influencia de su padre (y decimos indirecta porque desgraciadamente lo pudo conocer muy poco) queda patente para todo aquel que conoció a Estanis y conoce ahora a Joxerra.

Consciente de las aptitudes musicales de Joxerra, una prima suya le animó a matricularse en el Conservatorio de Rentería. Allí tuvo la suerte de conocer y ser alumno de un gran profesor, Ignacio Ubiria.

Al margen de lo que ha podido aprender de la lectura de distintos libros y de la preparación de algún que otro trabajo, se considera deudor básicamente de los conocimientos que ha adquirido en los conservatorios de Rentería y San Sebastián. Considera, de todas formas, imprescindible el trabajo personal constante para poder ser algo en el mundo de la música.

La música como materia de enseñanza le interesa mucho, ya que en su opinión, la gente que hoy en día termina una carrera musical adquiere unos conocimientos muy completos e interesantes. El poder transmitir a los demás esos conocimientos que uno ha adquirido supone una inagotable fuente de satisfacción.

El tomar parte en alguna agrupación musical, bien sea orquesta o banda, es un complemento importantísimo puesto que ahí es donde se llevan a la práctica los conocimientos teóricos y donde se pueden demostrar las aptitudes musicales que uno posee. Ello exige además estar al día en el repertorio musical y en el contacto con el instrumento, puesto que en cualquier momento hay que realizar un pasaje comprometido o simplemente tocar con dignidad dentro de un conjunto.

Actualmente ejerce de profesor en los conservatorios de Lezo (solfeo y trompeta), Lasarte (trompeta) y Azpeitia (trompeta). Forma parte, además, de la orquesta sinfónica del conservatorio de San Sebastián (trompeta solista) y de la banda municipal de Rentería. Es, finalmente, "clarín" de la Excelentísima Diputación Foral de Guipúzcoa y trompeta que acompaña a la banda municipal de txistularis del Ayuntamiento de San Sebastián.

La situación musical de Lezo le parece verdaderamente buena. Los más de doscientos alumnos con una cifra superior a las quinientas matrículas que posee dicho centro avalan la opinión de éste buen músico lezotarra.

*SALABERRIA Luis*



*"EASO Abesbatza Vaticanon Aita Santuari abesten. Erdi erdian Luis"*

**Sei edo zazpi urte zituela hasi zen Joan Bataiatzailearen Parrokian solfeoa ikasten. Entsaioak egunero izaten ziren, eguerdiko ordubatean, D. Luis Garmendia Urteagarekin. Garai hartan, Errenteriara joaten zen eskolara, fraileetara.**

**Solfeoa ikasten urte gutxi batzu pasa ondoren, abesteko ez zuela balio eta monagilo sartzeko esan zion irakasleak Luisek, ordea, ez zuen horrelakorik nahi. Eta nola edo hala, behintzat, tipleekin eta... kantatzen hasi zen. D. Luisek, solfeoa erakusteko, esku batekin armonioa jotzen zuen bestearekin makilari eusten zion bitartean.**

**Igande askotan, egun osoa pasatzen zuten elizan. Goizeko seiretan izaten zen meza; gero zazpi t'erdietan, zortzi t'erdietan eta azkenik hamarretan Meza Nagusia. Meza guztietan abesten zuten. Arratsaldeko ordubietan dotrina izaten zuten eta hiruretan Bezperak abesten zituzten. Hainbeste abestuaz, urte guztiko igandeetako "introito" eta bezperak buruz ikasten zituzten.**

**Gero D. Hipolito Gezala etorri zen. Ospetsua zen, Errenteriako Bandako zuzendaria izandakoa. Hau onegia zen eta guztien artean izugarrizko gaiztakeriak egiten zizkioten.**

**Hamabost urte zituela gutxi gora behera, 1941ean (gose larriaren garaiak) sortu zen "Schola Cantorum Sto Cristo de Lezo" zelakoa. Bere araudi eta guzti zuen. Astean entsaio bat egiten zuten (ordurako helduekin). Meza piloa ikasi zuten eta tipleekin abesten zuten hiru edo lau ahotsetara. Entsaio bakoitzean pezeta bat jartzen zuten Santa Zezilia egunean bazkaria egiteko. Egun horretan Meza handi bat abesten zuten eta hilabete aurretik hasten ziren bazkaria prestatzen. Menua D. Hipolitok egiten zuen; urtero berdintsua: Zopa, oilaskoa eta arrozesnea; azken hau nahita nahiezkoa. Oiartzun, Irun edo Bera aldera joaten ziren bazkaltzera. Hogeiren bat lagunek osatzen zuten abesbatza.**

**D. Luis eta D. Hipolitoren garaian, hiletak goizez egiten ziren (meza guztiak bezala), eta gainera, hiru mailatakoak izaten ziren : Pobreak edo hirugarren mailakoak ("tertzerakoak") goizeko zortzietan; ez hain pobreak edo bigarren mailakoak ("segundakoak") bederatzietan; aberatsak edo goi mailakoak ("primerakoak") hamarretan. Hori bai, guztietan, hildakoaren etxeraino joan eta elizaraino laguntzen zuten "Miserere mei Deus" abestuaz. Baina gero, pobrea bazen armonioarekin laguntzen zioten soilik; bigarren mailakoa bazen, organoa sartzen zuten eta bi ahotsetarako mezak abesten ziren; eta aberatsa bazen, apaizaren jantzia berezia izaten zen, organoa sartzen zen, hiru edo lau ahotsetarako mezak abesten ziren eta askotan kanpotik etorritako abeslarien laguntzaz. Hiletetan abesteko, eskolan baimen berezia ematen zen.**

**D. Hipolito hil eta D. Inazio Esnal etorri zen. Garai hartan Luisi Errenteriatik deitzen zioten, batez ere hiletetan abesteko. Mezak orduko arratsaldez izaten ziren. Hamar- hamabost bat urte egin zituen Errenterian hileta eta beste zenbait funtzioen artean ia egunero mezaren bat abesten (egun batzuetan hiru ere abestu izan zituen).**

**1958 urtean gutxi gora behera, Pasai Antxotik deitu zioten "Coral Pasaitarra" zelakoan abesteko, baina etxerako itzulera gauez egin behar zuela eta, etxean ez zioten utzi.**

**1964ean sartu zen Jose Mª Gonzalez Bastidak zuzentzen zuen Easo abesbatzan. Aldi berean, Oiartzungo Jon Oñatibia musikalariak "Coral Usandizaga" sortu zuen eta han ere abestu zuen hiru bat urtetan. Diska bat ere grabatu zuten Tomas Aragüesen meza batekin. Ordurako mezak erderaz egiten hasiak ziren eta euskaraz ere abesten zen.**

**Eason sartzea aldaketa izugarria izan zen. Ahotsak oso onak ziren. Berrogeitabost bat lagunek osatzen zuten, esan bezala Jose Mª Gonzalez Bastidaren zuzendaritzapean. Urte guzti hauetan oso une ederrak bizi izan ditu.**

**1966an, esate baterako, Portugalera joan ziren. Zenbait hiritan abestu ondoren Lisboan bukatu zuten "Oedipus Rex" abestuaz, Igor Stravinsky berberaren zuzendaritzapean. "Bello choro, bello choro!!..." omen zioen.**

**Geroztik, mundu osoan zehar ibiliak dira, gaur arte. 1969an hilabeteko bidaia egin zuten (orain arteko luzeena): Bilbo - Inglaterra - Dinamarka - Errusia(Leningrado) - Suedia(Estokolmo) - Alemania(Hamburgo) - Bilbo. Garai hartan abesti errusiar asko abesten zituzten.**

**Frantzian ere askotan abestu izan dute, batez ere Roberto Benziren zuzendaritzapean. Duela urte batzu, Lyon-go auditorium-ean mila bat pertsona (bi orkesta eta zazpirehun bat abeslari) elkartu ziren kontzertu batean. Espainia osoan zehar ere ibiliak dira, baita Alemanian, Italian, Suizan, Austrian, Grezian, Yugoeslavian, Turkian, Mexikon, eta Estatu Batuetan ere.**

**Halaber, "Gaztelupe" otxotearekin ere abestu izan du hainbat tokitan.**

**Easo abesbatzan hogeitabost urte bete zituen 1989an eta omenaldi bat jaso zuen. Hogeitazortzi bat urte daramatza, beraz, abesbatzan. Bederatzi urte Jose Mª Gonzalez Bastidarekin, bi bat Iñaki Ansorenarekin, beste bederatzi edo hamar Tomas Aragüesekin eta azkeneko guztiak Ramon Berazarekin. Hainbat bakarlari famatu-ekin ere abestu izan dute urte guzti hauetan zehar.**

**Egun, hirurogeiren bat lagun biltzen dira, esan bezala, Ramon Berazaren zuzendaritzapean, eta "Easo txiki"-a ere sortu dute.**

**Aurten ospatzen ditu abesbatzak urrezko eztaiak eta urtearen bukaeran Brasil eta Argentinara doaz.**

**Abesteko balio ez zuenak hirurogei urte daramatza abesten...... etengabe!!!**

Cuando tenía 6 o 7 años comenzó sus clases de solfeo en la Parroquia de San Juan Bautista.

Los ensayos eran diarios, a la una del mediodía con D. Luis Garmendia Urteaga. En aquella época asistía a las clases de la escuela de frailes de Rentería.

Después de pasar unos pocos años aprendiendo solfeo, el profesor le dijo que no valía para cantar y que se metiera monaguillo. Luis, sin embargo, no quería nada de esto. Y de una forma u otra empezó a cantar con los tiples... D. Luis, para enseñar solfeo, con una mano tocaba el armonium y en la otra mano sostenía el palo.

Muchos domingos los solían pasar en la Iglesia. Las Misas solían ser a las 6 de la mañana, a las ocho y media y por último a las diez "Misa Mayor". Cantaban en todas las misas. A las dos del mediodía solían tener catequesis y a las tres estaban las "Vísperas".

Después de cantar tanto se aprendían de memoria los "introitos" de todos los domingos y todas las "Vísperas".

Luego vino D. Hipolito Guezala. Era muy conocido. Fu Director de la Banda de Rentería. Este era demasiado bueno y entre todos le hacían grandes travesuras.

Cuando tenía más o menos quince años, en 1941 (la poca del hambre) surgió la "Schola Cantorum Sto. Cristo de Lezo".Tenía hasta su reglamento. Se hacía un ensayo a la semana (para entonces con los mayores). Aprendieron muchas misas y cantaban junto con los tiples a tres y cuatro voces. En cada ensayo cada uno ponía una peseta para ir a comer el día de Santa Cecilia. Esa comida empezaban a prepararla un mes antes y ese día cantaban una Misa Mayor. El menú lo hacía D. Hipolito y todos los años era el mismo:Sopa, Pollo y Arroz con leche; esto último era imprescindible.

Solían ir a comer hacia Oiartzun, Irun o Bera. Eran más o menos veinte componentes.

En la poca de D. Luis y D. Hipolito, los funerales se solían hacer a la mañana (como todas las misas), y además solían ser de tres clases:

- Los pobres o de Tercera, a las 8 de la mañana.
- Los que no eran tan pobres, o de Segunda a las 9 de la mañana.
- Los ricos o de Primera a las diez de la mañana.

Eso sí, en todas, se iba a casa del difunto y se le acompañaba hasta la Iglesia cantando "Miserere mei Deus". Si era pobre, solo acompañaba el armonium, si era de segunda intervenía el órgano y se cantaba la Misa a dos voces, y si era de primera, la casulla solía ser especial, intervenía el órgano, y se cantaban misas a tres y cuatro voces. Muchas veces incluso venían de fuera a ayudar a cantar. Para cantar en los funerales, daban permisos especiales en la escuela.

Cuando murió D. Hipolito vino D. Ignacio Esnal. En esa poca a Luis le llamaban de Rentería para cantar en los funerales. Las misas para entonces solían ser a las tardes. Pasó diez-quince años cantando en funerales y otras funciones en Rentería, casi todos los días cantaba una misa (ha solido cantar tres misas en un día).

Más o menos en 1958, le llamaron de Pasajes Ancho para cantar en la "Coral Pasaitarra", pero como la hora de volver a casa era muy tarde, en casa no le dejaron.

En 1.964 entró en el "Coro Easo" dirigido por Jose Mª González Bastida. Al mismo tiempo, el músico Jon Oñatibia de Oiartzun formó la "Coral Usandizaga" y también tomó parte en ella durante tres años.

También grabaron un disco con una Misa de Tomás Aragües. Para entonces, ya empezaron las Misas en castellano y tambin empezaron a cantar en euskera.

El entrar en el Coro Easo supuso un gran cambio. Las voces eran muy buenas. Tenía cuarentas y cinco componentes, con el director antes mencionado Jose Mª González Bastida. En todos esos años ha vivido momentos muy hermosos.

Por ejemplo en 1966 fueron a Portugal. Después de cantar en distintos pueblos acabaron en Lisboa cantando "Oedipus Rex", con la dirección del mismísimo Igor Stravinsky. "Bello choro, bello choro!!..." dicen que dec!a.

Desde entoncés, han recorrido todo el mundo, hasta hoy. En 1969 hicieron un viaje que duró un mes (el más largo que han hecho hasta ahora):

Bilbao-Inglaterra-Dinamarca-Rusia (Leningrado)-Suecia (Estocolmo)-Alemania (Hamburgo)-Bilbao. En aquella época cantaban muchas canciones rusas.

También han cantado mucho en Francia, sobre todo bajo la dirección de Roberto Benzi. Hace pocos años, en el auditorium de Lyon, se juntaron mil personas (dos orquetas y unos setecientos cantantes) en un concierto. Tambien han recorrido toda España, Alemania, Italia, Suiza, Austria, Grecia, Yugoeslavia, Turquia, Mexico, y Estados Unidos.

Con el Otxote "Gaztelupe" ha cantado muchas veces en distintos lugares.

En 1989 cumplió 25 años en el Coro Easo y le hicieron un homenaje. Lleva más o menos 28 años cantando. Nueve años con Jos Mª Gonzalez Bastida, dos con Iñaki Ansorena, otros nueve o diez con Tomás Aragües y el resto con Ramón Beraza. También han cantado con distintos solistas famosos.

Este año celebra el Coro las bodas de oro, y a finales de año irán a Brasil y Argentina.

El que no valía para cantar, lleva sesenta años cantando... sin descanso!!!.

## SALABERRIA Miguel



*"Miguel, bere ama Manuela eta Aargentinako lehengusinarekin"*

**Jaiotzez Lezokoa, baina urte askotan Bilbon dago apaiz.**

**Zazpi edo zortzi urte zituela Lezoko parrokian hasten da abesten. Egunero joaten zen solfeora, eguerdietan. Noten izenak ikasi eta berehala hasten ziren haurrak orduan gregorianoa ikasten. Irakaslea D. Luis Garmendia Urteaga zen eta urte guztian zehar aritzen ziren jo ta ke musikarekin, oporrik gabe.**

**Entsaioetarako armonium bat, "Chaperon" markakoa, erabiltzen zuten eta han ikasitakoa mezetan abesten zuten. Tiple koroa zen.**

**Jai eta ospakizun berezietarako (Gabonak, herriko jaiak...) helduekin egiten zituzten entsaioak Hipolito Gezalaren zuzendaritzapean. Corpus Christi egunean bezperak abesten zituzten. Gurutze Santuaren egunean D. Luis Urteaga musikagile eta organo-jole ospetsua etortzen zen meza nagusian organoz laguntzera.**

**Beheko elizan ia astero nobenaren bat izaten zen (animak zirela, Ama Birjinaren ospakizuna zela...).**

